

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

2020 urteko kultura egitarauetarako diru-laguntzen ematea

2020ko abenduaren 18an egindako ohiko bilkuran onetsi zuen Tokiko Gobernu Batzarrak Laudion 2020 urteko kultura egitarauetarako diru-laguntzen ematea.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. Artikuluan eta 45. Artikuluko b. puntuan xedatutakoaren ildotik, hau argitaratzen da, denek jakin dezaten:

2020an Laudion kultura egitarauetarako diru-laguntzen ematea onestea

2020ko martxoaren 6an egindako ohiko bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Laudion 2020 urteko kultura egitarauak garatzeko diru-laguntzak emateko deialdia eta hura arautzeko oinarriak.

2020ko martxoaren 13ko ALHAOn argitaratu ziren deialdia eta oinarriak, eta eskaerak aurkezteko epea ireki zen, 19-EBKOk eragindako osasun-egoera dela eta, 2020ko ekainaren 30era arte, parte hartu zuten erakundeek dagozkien eskaerak aurkeztu zituzten.

Guztira 11.397,56 euro 2020ko Aurrekontuko bada aurrekontu-zuzkidura nahikorik gastu aurre egiteko, lote batean banatuta, 0600 3341 48110 partidan.

Diru-laguntzaren ehuneko ehun zenbatekoa justifikazioa aurkeztu baino lehen ordainduko da.

Diru-laguntzaren onuradunek hilabeteko epean justifikatu beharko dute diru-laguntza, diruz lagundutako jarduera amaitzen denetik edo 2021eko martxoaren 31 baino lehen.

Aurrekariak kontuan izanik, Tokiko Gobernu Batzarrak Laudion 2020 urteko kultura egitarauak garatzeko diru-laguntzak ematea onestu du, zehazten diren zenbatekoetan:

1. SORTA

Agente ezberdinek gure herrian antolatutako jarduera kulturalak. Kopurua 11.397,56 euro.

ELKARTEA	EGITARAUA	2020KO DIRULAGUNTZA
AMPA Gallarraga	Gabonetako jaia	0,00 €
AMPA Jesuri	Fiesta de Carnaval	314,04 €
AMPA Jesuri	Fiesta de Santa Águeda	35,00 €
AMPA Jesuri	Fiesta de Olentzero y Maridomingi	0,00 €
Cofradía de Sant Roque	Recuperación Memoria Juan Ibarrola Orueta	1.480,00 €
Cofradía de Sant Roque	Recuperación Memoria Martínez Del Villar	2.073,66 €
AMPA Lamuza	Cuenta cuentos	367,50 €
AMPA La Milagrosa	Martxa	1.800,00 €
Fundación ArteOn (Escolanía)	Canto coral	1.928,90 €
Asociación Bi Hotsak	Canto coral	1.235,20 €
Kirikiño Atsedeen Taldea	Kirikifesta	1.250,00 €
Laudio Ikastola Koop E.	Ihauteriak	557,36 €
Laudio Ikastola Koop E.	Mugimendu libre eta jolasa	355,90 €

Interesdunei erabakiaren berri ematea, eta orobat jakinaraztea horren kontra, administrazio bidea agortzen baitu, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dela zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik kontatuta, edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik kontatuta; horren berariazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, bi hilabeteko epean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, errekurtsoa ezesten duen ebazpenaren berri jasotzen den egunaren biharamunetik kontatuta, edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik kontatuta.

Laudio, 2021eko urtarrilaren 11

Alkalde-udalburua

ANDER AÑIBARRO MAESTRE